


Maisu handiak xake txapelketan

Hilaren 7tik 14ra bitartean Nazioarteko Xake Txapelketaren XXIV. edizioa jokatu da Costa Vasca hotolean. Guztira 110 bat jokalarik parte hartuko dute, eta bakoi-tzak bederatzita partida jokatuko ditu. Parte hartzaileen artean aipatzekoak dira Oleg Korneiev errusiarra edota Roberto Cifuentes espainiarra. Euskal herritar asko ariko dira txapelketan.



Boxeo jaialdia Ilunben

Hilaren 6an, ostirala, boxeo jaialdia egingo da Ilunbe zezen plazan 22.30etatik aurrera. Guztira lau boxeo-borrokaldi jokatu dira. Aipatzekoa da Jon Trekuk debuta egingo duela profesional mailan. Oizartungo boxealariak Patrik Arretxerekin neurtuko ditu indarrak. Nabarmentzekoa da, halaber, Poli Diaz ere jaialdia ikustera etorriko dela.



Txapelkun berriak Intxaurrondon

Joan den igandean Intxaurrondoko pilota txapelketaren finalak jokatu ziren auzoko frontoian. Senior mailan Huizi eta Bengoetxea 22 eta 15 nagusitu zitzaizkien Errasti anaiei. Jubeniletan, berriz, Aizagirrek eta Iruretak 22 eta 14 irabazi zieten Lasa eta Jauregiri.

Ziztu bizian Igeldon

Hilaren 6an, igandea, Euskadiko Mendi Txapelketarako puntuagarria den auto lasterketa jokatu da Igeldon. Bertan 60 gidarik parte hartuko dute. Zirkuitu honetan aspaldiko partez egingo den lehenengo lasterketa izango da.


Autoek hiru aldiz egin beharko dute ibilbidea. 10.30etan entrenamendu saioen txanda izango da, 11.15etan, lehenengo lasterketarena, eta 12.30etan bigarren lasterketa jokatu da. Sailkapenerako, bi lasterketa txandetan gidari bakoitzak egindako denborarik onena hartuko da. Kotxeen irtenaldien artean 30 segunduko tartea egongo da, eta ibilbideak 2.800 metro luze izango ditu.

Parte hartzaileei dagokionez, izen handiak ariko dira Donostian. Guztira, 60 auto ikusi ahal izango dira Igeldoko aldapetan: hiru barketa eta 57 karrozadun. Karrozadunen artean ikuskizuna ziurtatuta dago; munduko rally txapelketan hamaika garaipen lortutako Ford, Mi-thubisi eta Seat Ibiza, esaterako, nor baino nor ariko baitira. Aitor Zabaleta edota Andres Vilariñorekin batera, besteak beste, Euskadiko rally txapelketa den Jon Agirrek eta Israel de Pedrok parte hartuko dute. Pilotu frantziarrak ere Igeldon izango dira, hilaren 13an Jaizkibelen jokatzekoa zen lasterketa hauteskundeak direla eta atzeratu egin baita.

Aspaldiko lasterketak gogoan

Azpeitiko Lagunartea batera, Publivasc enpresak lasterketa honen antolakuntza bere gain hartu du. Gontzal Rodriguez antolatzaileak dioskunez, "Donostian kotxe lasterketa antolatzeko asmoa ez da berria. XX. mende hasieran Igeldon izandako lasterketa berreskuratu nahi dugu". Aurten baimenak berandu iritsi direnez, antolatzaileak korrika eta presaka ibili dira, baina Gontzalek adierazi digunez, "datozen edizioetan ibilbide luzeagoa antolatu nahi dugu, meteorologia zentroraino, hain zuzen".

Probak auto lasterketaz gozatzeko aukera emango die Donostiako zaleei: "donostiarrek ez baitute inguruko herrietan antolatzen diren lasterketara hurbiltzeko ohiturarik". Igeldokoa Euskadiko Mendi Txapelketarako puntuagarria da. Guztira, hamasei lasterketek osatzen dute txapelketa. Orain arte San Kosmen eta Bilboko La Reinetan jokatu dira lehendabiziko bi lasterketak eta Vilariño eta Brizuela daude sailkapenaren lehenengo postuetan.



Guztira, 60 auto lehiatuko dira Igeldoko aldapetan: hiru barketa eta 57 karrozadun.